



Euskara ikasteko aukerak aurkeztu ditu Aitzol Udal Euskaltegiak

TOLOSA ▶ Izen-ematea zabalik da hilaren 21a bitarte; «kalitateko» eskaintza izango dela azaldu dute ▶ 2



Azaldegi, Lasa eta Atxaga udal arduradunak atzo, aurtengo ikasturtearen aurkezpenean. LEIRE MONTES

AMEZKETA ▶

Renobales eta Belloso, igandeko finalean

XV. Joxean Tolosa Txapelketa da ▶ 5

TOLOSA ▶

Autorik gabe ibiltzen ohitzeko eratu dute Mugikortasun Astea

Bihar, '24 ordu oinez' ekimena jarriko dute martxan ikastetxeek ▶ 3



INIGO TERRADILLOS

XABIER FERNANDEZ ▶ TXAPELDUN OLINPIKOA

«Herritarrekin oso pozik nago, nabari baitzen oso gustura zeudela»

Laster Munduko Probara joango da ▶ 6

LEITZA ▶

Gorritzaran eta Erasote ubideratzeko plana

Udalbatzarrak onartu egin du ▶ 7

<p>www.saldias-miguel.com saldias@saldias-miguel.com</p> <p>Saldias Miguel Nº D.G.S.J.1759</p> <p>ASEGURUETAKO ARTEKARITZA</p>	<p>KOTXE ASEGURUAU</p> <ul style="list-style-type: none"> - KOTXA - ZIKLOMOTOREAK - ISTRIPU ASEGURUAU - BIZITZA ASEGURUAU - ETXEBIZITZA ASEGURUAU - BAJAK - ERANTZUKIZUN ZIBILA 	<ul style="list-style-type: none"> - ENPRESAK - MAILEGIAK - INBERTSIKAK - KOMUNITATEAK - E.P.S.V. (desgrabazio fiskala) - pentzio planak, jubilatzea... <p>Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462</p>
--	---	---

EUSKARA ▶

«Esan 'bai' euskarari»

2004-2005 ikasturteko eskaintzak aurkeztu ditu Aitzol Udal Euskaltegiak; izen-ematea zabalik da hilaren 21a arte, eta 23an hasiko dituzte eskolak

LEIRE MONTES

2004-2005 ikasturterako plangintza prest du dagoeneko Aitzol Udal Euskaltegiak. Izen-ematea zabalik dute egunotan; hilaren 21a izango da izena emateko azken eguna, eta 23an ekingo diete eskolei. Atzo, ikasturte berrirako eskaintzak eta asmoak aurkeztu zituzten euskaltegiak eta Udaleko ordezkariak.

Onintza Lasa Euskara zinegotziak euskaltegia jende guztiarentzat aproposa dela azpimarratu zuen: «Aukera aparta da euskara ikasi nahi duenarentzat, baina ez harentzat soilik. Hobetu nahi duenarentzat, erabili nahi duenarentzat... Aukera asko eskaintzen ditu euskaltegiak, eta esparru zabala hartzen du». Ingurune guztia euskalduntzearen garrantzia ere aritu zen Lasa; haren esanetan, haurrek bermatuta dute hezkuntza sisteman euskararen erabilera, baina gurasoekin eta inguruko guztiekin lan bera egin behar da: «Ingurune hori euskaldundu behar dugu euskara benetako komunikazio tresna izatea nahi badugu. Euskararen normalizazioa eta biziraupena guztion erantzunkizuna baita».

Iñaki Azaldegi Euskara teknikaria eta zerbitziburuaren iritziak, «euskalduntze-alfabetatzea atal estrategikoa da. Neki lortuko dugu belaundia berria euskaraz normalkuntzaz aritzea gure aurretik daukan ez baditugu euskalduntzen. Eta atzetik datorren ulatu



Ezkerretik hasita, Iñaki Azaldegi, Onintza Lasa eta Miren Atxaga, atzo, aurkezpenean. LEIRE MONTES

euskaldun horri ezin diogu trabarik jarri». Aitzol Udal Euskaltegiak «oso lan duina» egin duela gaineratu zuen: «Gero eta malguagoak izan behar dugu, eskariak ere oso anitzak direlako. Lan malgua, duina eta kalitatekoa eskaini dute orain arte, eta horretan jarraituko dutela ziur nago».

Egoitza aldaketak ekarri dituen hobekuntzez mintzatu zen, bestalde, Miren Atxaga Aitzol Udal Euskaltegi zuzendaria; «egoitzaren kokapen ezinhobea, irisgarritasun baldintzak, azpiegiturak eta teknologia berriak» aipatu zituen, besteak beste.

Eskaintza, «kalitatekoa»

Orain arte bezala, 2004-2005 ikasturteko eskaintza ere «kalitatekoa» izango dela azaldu zuen zuzendariak, era berean: «Tolosan 22 urteko eskarmen-tuak euskaldunok erreferente bilakatu gaitu. Urte hauetan erronka berriei heldu egin diegu, eta irakasleriaren formakuntzan ahalegin berezia egin dugu. Kalitateza zaintzea eta ikasleentzako zerbitzu egokia ematea dira gure oinarriak».

Orduetegi eta erritmo aldetik «aukera handia» eskaintzen saiatzen da Aitzol Udal Euskaltegia. 08:00etatik 22:00ak arte dago zabalik; eta eguneroko bi orduko ikastaro klasikoaz gain, beste erritmo batzuk ere aukeratu dituzke ikasleak, mailaren arabera. Ikastaro bereziak ere antolatu dituzte.

Eskolez gain, zenbait ekintza

IZEN-EMATEA ▶

Aitzol Udal Euskaltegiak 2004-2005 ikasturterako izena emateko epea zabalik da. Hilaren 21 da azken eguna, eta 23an hasiko dituzte eskolak. Matrikula egin nahi duenak euskaltegiara jo besterik ez du: Pablo Gorosabel 34 B-3. solairua; 943 65 10 06 eta 943 65 23 43; aitzolue@tolosakoudala.net. Edozein kezka edo zalantza argitzea eta informazioa jasotzeko ere horixe da bidea.

osagarri ere antolatzen dituzte urtero euskaltegiak: ikastaroen, hitzaldiak, antzerkiak, eztabaidak, emanaldiak... «Horrela, ikasleari errazago egiten zaio ikasgelatik erabilera errealerako jauzia», dio Atxagak. Beste udal euskaltegiekin harremanetan jarri dira aurten horrelako eskaintza «gehiago zabalteko».

Joan den ikasturte bukaeratik, bestalde, HABEren ziurtagiri berriak lortzeko azterketak egin dituzte euskaltegiak, eta «kontuan hartzeko emaitzak» lortu dituzte.

Autoikaskuntza, internetez

Ikasleei zuzeneko jarraipena egitea gaketat jotzen dute Aitzol-en: «Ikasleen maila eta helburuak dira gure oinarri ikastaldez antolatzeko uneak. Beti ere saiatzen gara taldeak ahalik eta homogeneoen

egiten, eta ikasle gehienek trahamendu pertsonalizatua jasotzen dute beren beharren arabera».

Pertsonalizazio mailarik goiena, hain zuzen ere, autoikaskuntza sisteman gauzatzen da. «Ikasle bakoitzak, bere tutorearekin batera, helburuak, ibilbidea... adosten ditu. Aurreko ikasturtean ekin genion gure aspaldiko proiektu honi, eta ikasturte honetan ere ildo beretik jarraituko dugu». Berrikuntzarik ere izango du, gainera: «Orain arteko balantzea ona izan da; ikasleek erantzun ona eman dute. Orain, gure zerbitzua Boga izeneko programa interaktibo multimediarekin osatu dugu, eta Internet bidez, etxetik, lanetik, KZgunetik... ikas dezakete gure ikasleek».

Zuzeneko arretan horren baitan, gizarteko talde bakoitzaren ezaugarriak kontuan izatea ezinbesteko dela diote euskaltegiak. «Horregatik, talde jakin batzuegan —irakasleak, gurasoak, osasun langileak, jatorri kultural antzeko taldeak, enpresetako langileak...— zuzentzen gara. Talde berezi horietako ikasleek bere ikastetxean edo lantokian bertan hartzen dituzte eskolak, eta ikasgaiak haien beharretara egokitzen ahalegintzen gara». Jatorri kultural antiza daukaten pertsonen taldeen-tzako, esaterako, 60 orduko modulu berezia eskainiko dute 2004-2005 ikasturtean, HABEK espreski haien artean prestatu duen Aisa izeneko materialak.

ERAKUSKETA ▶

Bisita gidatuak, 'Zaharkinak' erakusketan

Hilaren 26a arte, ikusgai da Ferialekuan *Zaharkinak* erakusketan, goizez 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era arratsaldean. Biharko eta hurrengo ostiralerako (hilaren 24a) bisita gidatuak antolatu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. Bihar Fermin Leizaola Aranzadiko kide eta *Zaharkinak* proiektuaren arduradunak emango ditu azalpenak, gaztelaniaz. Hilaren 24an, berriz, Aranzadiko Aitzpea Leizaola izango da gidari, eta euskaraz eskainiko du saioa. Bisitetan parte hartzeko interesa dutenek egun eta ordu horietan Ferialekuan agertu besterik ez dute.

IKASTAROA ▶

Lehen laguntzen ikastaroa Gurutze Gorriarekin

Tolosaldeko Gurutze Gorriak lehen laguntzen ikastaroa antolatu du. Hilaren 20tik urriaren 1era iraungo du ikastaroak. Astegunetan 19:00etatik 21:00etara eskainiko dituzte eskolak, eta 09:00etatik 14:00etara larunbatetan. Izena eman nahi duenak 943 67 48 88 telefonora deitu behar du; ikastarorari buruzko informazioa ere jasoko du bertan.

MATRIKULAZIOA ▶

Izen-ematea Helduen Heziketa Iraunkorrean

Helduen Heziketa Iraunkorrean (EPA-HHI) zabalik da 2004-2005 ikasturterako izena emateko epea. Aukera ugari eskaintzen dituzte: DBHko graduatua, unibertsitateko sarrera 25 urte gorakoentzat, irakurketa eta idazketa hastapenak, hizkuntzak, etorkinentzako gaztelaniazko ikastaroak, egur taila, informatika hastapenak eta internet... Gainera, hitzaldiak, txangoak eta irteerak ere antolatzen dituzte, besteak beste. HHI ikastetxe publikoa eta doakoa da, 18 urte gorakoentzat. Izena eman nahi duenak Igaralde kaleko 23-25era jo behar du (943 67 26 60). VIlabonan ere egin daiteke matrikula, udaletxeko plazan dagoen egoitzan (943 69 03 12).

TOLOSAKO UDALA

2004ko Ekonomi Jardueren gaineke Zergari dagozkion errezeptoak borondatezko ordainaldian daudela, jakinarazten dugu. Hauex da epea: 2004ko urriaren 1etik 2004ko azararen 10ra.

2004ko irailaren 4an baino lehen banku edo Kutxa helbideratutako agiriak, zergadunak esandako kontuan sartuz kobratuko dira zuzenean.

Helbideratzeke daudenak zergadunaren etxera bidalko dira posta bidez urriaren barruan. Berak emandako helbide fiskalera.

Etxean jasotako errezeptoak ordaintzeko jo Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Banco Guipuzcoanora. Errezeptoak erakustearik nahihoa da. Hauex dakarkizuet gogora, ordaintzera joaterakoan, hemendik aurrerako errezeptoak banku edo aurrezki kutxa horietan helbideratzekeo aukera duzela.

Urriak 20rako zergadunak ez badu jasoko bere helbidean agiria, Tolosako Udala Zerga Bilketa bulegoan eska dezake.

Goian esandako epe hori amaitu ondoren, premia bideari ekingo diogu, eta ordaindu ez diren errezepto horiek errekargoa izango dute, atzerapenagatik sortutako interesak eta kostoak ere zergadunak kobratuko zaizkie.

Tolosan, 2004ko irailak 13an
ALKATEAK

MUGIKORTASUN ASTEA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Autorik Gabeko Eguna egin zuten iaz herrian, baina aurten goan apustu handiagoa egin nahi izan dute udal arduradunek Ingurumen departamentuaren bitartez, eta Europako Mugikortasun Astearekin egin dute bat «herritarrek herrigunean autorik gabe ibiltzen ohi daitezten». *Kale seguruak haurtzat* lelopean, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte datozen egunetarako, eta Tolosako hainbat talderen laguntza izan dute horretarako. Hilaren 22an, asteazkenarekin, izango da asteo ekitaldi nagusia. Autorik Gabeko Eguna, alegia, eta egun horrek ibiko du astea.

Astea zabaltzeko Agenda 21eko Eskola Foroarekin elkarlanean osatu dute udal ordezkariak 24 ordu oinez egitasmoa. Tolosako ikastetxe guztietako ikasleek eta irakasleek hartuko dute parte ekimenean, eta taldeka, bi ibilaldi egingo dituzte: egunez bat eta gauz beste. Bi ordu inguru iraungo du egunez egingo duten ibilaldiak, eta ikastetxe guztietara joango dira partaideak. Gauekoa «motzagoa» izango dela esan dute antolatzaileek, eta kasu horretan ere ikastetxe guztietatik pasatuko dira. Samaniego-Orixe eta Eskolapioetatik izan ezik. Gau osoan zabalik izango da Kultur Etxea, eta «parte-hartzaileei txokolata banatuko zaie». Hurrengo egunean, eguerdian, festa batekin bukatuko dute egitasmo hori.

Igandean ibilaldia egingo dute bizikletaz Tolosatik Zizurkilera, eta bidean Anoetako, Irurako eta Villabonako herritarrek gehituko zaizkie Tolosatik abiatutakoei. Herri bakoitzean ekitaldiak egingo dituzte, gainera, udalek antolatuta. Tolosara itzultzean, hamai-ketakoa izango da denentzat.

Aste osoan zehar mugikortasunarekin zerikusia duten liburu eta ipuinen eskaintza berezia egingo dute haur liburategian, eta neurketak egingo dituzte kaleko zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, garraio publikoaren erabilera... aztertzeko.

Autorik Gabeko Egunean, berriz, aisialdi eta kirol taldeek antolatuko dituzte jolasak Solana kalean, Trianguloan eta Euskal Herria plazan. Alde Zaharra eta Euskal Herria plaza

Mugikortasun Astea, herrian autorik gabe ibiltzen ohitzeko

Hilaren 22an izango da Autorik Gabeko Eguna; ekitaldiak, berriz, aste osoan



Askotariko ekitaldiak prestatu dituzte Mugikortasun Astearen baitan; Autorik Gabeko Egunean haur jolasak izango dira, besteak beste. L. MONTES

EGITARRUA ▶

Europar Autorik Gabeko Eguna izango da hilaren 22an, asteazkenarekin, eta Tolosan Mugikortasun Iraunkoraren Astea antolatu dute udal ordezkariak horren harira. Egun bakarra ez, eta aste osoa iraungo du egitasmoak. Hona, egunez egun, horren inguruan antolatu dituzten ekintzak:

HILAK 17, OSTIRALA

24 ordu oinez.

▶ 12:00. Tolosako ikastetxeek egin nahi duten apustuari hasiera emango zaio: 24 ordu oinez, taldeak txandakatu.

HILAK 18, LARUNBATA

24 ordu oinez.

▶ 12:00. 24 ordu oinez probaren bukaerarekin batera, parte-hartzaile guztiekin festa bat egingo da Trianguloan.

peatonalizatuta egingo dira aurreko egunetatik, «herriko plazak eta kaleak oinezkoentzat izanez gero elkarbizitzarako eta aisialdirako guneak berreskuratuko ditugulako».

Pedalaren Eguna.

▶ 17:00. Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta, txirindulari proba herrian zehar.

▶ Mailak: 5-8 urte bitartekoak, 9-10 urte bitartekoak eta 11-12 urte bitartekoak.

▶ Sariak: lehenari 90 euro; bigarrenari 60 euro eta hirugarrenari 30 euro. Gainera, sari berezia egingo da azken sailkatuarentzat.

▶ Izen-ematea: irteera baino ordu bete lehenago.

HILAK 19, IGANDEA

Erniopeko txirindulari bira.

▶ 09:00. Tolosa (irteera Triangulotik) eta Zizurkil arteko bizikleta ibilbidea. Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilgo parte-hartzaileak gehitzen joango dira bidean zehar, eta ekitaldiak egingo dituzte. Zizurkilera iritsitakoan, parte-

hain zuzen ere, herriko gu-
neak eta kaleak oinezkoentzat
izatea eskatuko dute Mugikortasun Asteo ekimenean. Izan ere, «hirigunea atseginagoa, hobe eta seguruagoa da trafiko gutxiagorekin».

hartaile guztien artean zozketak egingo dira.

HILAK 20, ASTELEHENA

Euskal Herria plaza eta Alde Zaharra, oinezkoentzat.

▶ 17:30. Txokolata denentzat Euskal Herria plazan.

▶ 18:00. Ipuin kontalariak, haur liburutegiak antolatuta Euskal Herria plazan.

▶ 20:30. Zinema Euskal Herria plazan.

HILAK 21, ASTEARTEA

Euskal Herria plaza eta Alde Zaharra, oinezkoentzat.

▶ 17:30. Txokolata denentzat Euskal Herria plazan.

▶ 18:00. Ipuin kontalariak, haur liburutegiak antolatuta Euskal Herria plazan.

▶ 19:00. Mugikortasun Foroa Kultur Etxeko areto nagusian:

ko gutxiagorekin». Autoaren ordez oinez edo bizikletaz ibiltzea aholkatzen dute, hala, edo, bestela, garraio publikoa erabiltzea. Hala ere, Mugikortasun Astea bakarrik ez, «urte oso-

Tokiko Agenda 21eko aholkularitza batzordearen saioa. *Tolosako mugikortasun jasangarriaren aukerak eta erronkak* aztertuko dira, herritarren partehartzearen bitartez Tolosako mugikortasunari buruzko diagnostikoa egiteko.

▶ 20:30. Zinema Euskal Herria plazan.

HILAK 22, ASTEAZKENA

'Nire autorik gabeko hiria':

▶ 17:00. Haur liburutegia, bizikleta jokoak, herri jolasak, pintatzeko txokoa, rokodromo eta tirolina, txokolata-jatea, bizikletak konpontzeko tailerra... 20:00ak bitarte, Trianguloan, Euskal Herria plazan eta San Frantzisko ibiltokian. Eurria eginez gero, Beotibar pilotalekuan izango dira jolasak.

an hartu behar dira gisa horretako neurriak» udal ordezkarien aburuz, hala lortuko delako «garapen eramangarriaren bidean dauden arazoak behar bezala konpontzea».



www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

ASTEASU ▶ GIZARTEA

Azoka Berezia izango da igandean Asteasun

Ganadu erakusketa, eskulangintza, tresnak edota fruta eta barazkiak egongo dira

G. AZKUE

Igandean, azoka eguna izango da Asteasun. Aurreko urteetan egin duten moduan, nekazaritzaren inguruko produktuak eta tresnak ikusi ahal izango dira, besteak beste.

Azoka, 10:00etan irekiko dute, 14:00ak arte; arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita herriko plazan eta inguruetan.

Ikusteko atal ezberdinak egongo dira. Batetik, Asteasuko ganaduen erakusketa egongo da; Asteasuko VIII. Fruta eta Barazki Azoka ikusteko aukera ere izango da. Gazta, kontserbak, txerrikiak

eta bestelako euskal produktuak ere jarriko dituzte igandean. Nekazaritza eta abeltzantzako tresnekin beste postu bat egongo da; eta azkenik, eskulangintzaren inguruko produktu ugari ikusteko aukera izango dute bertarantz direnek: lanabesak, egur taila, eskulanak, kandelak...

Azokako postuez gain, Zubieta joaldunak ibiliko dira eguerdian herrian zehar. 18:00etan, berriz, haurren txanda izango da, Gorritiren animaliak ikusteko aukera izango dute txikienek.

Eta egun osoan zehar zaramika egiteko aukera izango dute haurrek.

ANOETA/IRURA ▶ GIZARTEA

Autodefentsa eta yoga ikastaroak abian

Autodefentsa ikastaroa Iruran izango da; 24a, yogan izena emateko azken eguna

G. AZKUE

Irurako eta Anoetako udalek, autodefentsa ikastaroa antolatuko dira. Gorputzaren ezaguera, erlaxazioa, eraso bati aurre egiteko teknikak edota gauza arruntak defentsarako nola erabili ikastea aukera izango da ikastaroan.

Urriaren erdialdean hasiko da ikastaroa eta abenduaren erdialdera arte egongo dira bertan ikasleak. Ikastaroaren ordutegia, izena ematen duten ikasleen arabera zehaztuko da, horretarako urriaren 14an 19:00etan Irurako udaletxean bilduko dira. Izena emateko azken aukera urriaren 13an izango da; langileek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerako langabetu eta ikasleek 20 euro. Hala ere, 12 urteko gorakoek bakarrik hartu

dezakete parte Iruran burutuko den ikastaroan.

Yoga ikastaroa

Anoetako Udalak, berriz, yoga ikastaroa antolatu du. Klaseak urriaren 4an hasiko dira eta abenduaren 17an bukatu. Ikasleak udal areto nagusian bilduko dira, astean behin. Aukera ezberdinak dituzte ordea: astelehenetan edo asteazkenetan 18:30etik 20:00etara, 9:30etik 11:00etara.

Izena emateko azken eguna irailaren 24a izango da udaletxean, 9:00etatik 13:00etara. Udalak zuzenean kobratuko ditu hiruhilabeteko 40 euroak kontu korrontetik. Bestetik, eskulanetako ikastaroaren deialdia irailaren bukaeran egingo dute.

ZIZURKIL ▶ JAIK



Asteasuko bidean jende ugari bildu zuen *Acroquads* ikuskizunak. A. LARREA

Festen balorazio «positiboa» egin dute arduradunek

Ikuskizunek jende asko erakarri dute aurten festetara; gauza berriak antolatzea izan da aurtengo apustua

GARAZI AZKUE

Festa gutxi gelditzen dira jada inguruko herrietan, asteburu honetakoak pasa baitira. Zizurkilgo Elbarrenan beste urtebete itxaron beharko dute berriz ere herriko jaiak gozatzeko.

Baina orokorrean festak «ongi» aterata direla aipatu du Ainhoa Larrea Udaleko kultura teknikariak. «Orokorrean positiboak izan dira, nahikoa jende ibili da festetan». Aurtengo festetako apustua gauean gastatzen zena egunez gastatzea izan da Zizurkil, «azkenean, betiko berbenak ez antolatzea orokorrean positiboa izan da».

Gaueko ekintzetan, ostiral gaueko bi ikuskizunak aipatu ditu Larreak, pasa den urtean ere egin zen ikuskizuna eta ondo aterata zenez, berriz egitea erabaki zuten. «Herriko jendearen parte hartzea azpimarratu behar da gaueko ekintza hauetan. Malabaren ikuskizuna asko landu zuten herritarrek eta azkenean horrek egin den festa». Malabaren ikuskizunaren ondoren, *Break Dance* dantzariak igo ziren Joxe Arregi plazako taula gainera, «*Break dance* ikuskizunak jende asko erakarri zuten, horrek Zizurkilaren funtzionatzen duela ikusi dugun». Eta gauekoekin jarraituz, maria-



Erromerian parte hartu zuten dantzariak. A. LARREA

txiek beste ikusle mota bat erakarri zuten.

Azken egunean, berriz, Loatzo musika eskolako gaztetxo txanda izan zen, «Udalak Loatzoren alde apustu handia egin zuen eta fruituak ikusi dira», aipatu du Larreak.

Herriko jaietan bazkariak eta afariak ere herritar asko erakartzen ditu, «baina urte guztian zehar festa batzordean jende gutxi biltzen da», gaineratu du Ainhoa Larreak.

Bakailao lehiaketa ez zen burutu, jende gutxi eman baitzuten izena, baina lore lehiaketa izan zen irabazlerik: Manuel Cortesen *Diruaren landareak* irabazi zuen lehen

saria, «landare handiak ekarri zituzten eta polita izan zen».

Haurrek ere «asko gozatu dute festa hauetan», joko asko antolatu ditu beraientzat festen batzordeak.

Bikers ikuskizunak eta *Acroquads* ikuskizunak ere jende asko erakarri zuten festetara. Eta marrazki lehiaketa ere haur askok hartu zuten parte. Orokorrean, beraz, «jende asko ibili da festetan».

Bestalde, igande goizean burutu zen kroseto denborak ikusi nahi dituenarentzat, www.herrikrosa.com webgunea jarri dute martxan; gu berean kroseto argazkiak erosi ahal izango dira.



LIZARBI

Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak Zurgintza orokorra
Tailakeskuz eginak Zaharrien berriztatzea

San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

AMEZKETA ▶ PILOTA

Renobales eta Belloso XV. Joxean Tolosa Txapelketako finalean

Kadeteen, gazteen eta nagusien partidak igandean, hilaren 19an, jokatu dituzte Larrunarrin 17:00etatik aurrera



Aurten ere Joxean Tolosa berak banatuko ditu sariak. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Datorren igandean, hilaren 19an, jokatu dira Larrunarrin pilotalekuan XV. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalak; beti bezala, 17:00etan hasiko dira finalak. Eta pasa den asteburuko finalerdiak kontutuan hartuta, lehia biziko neurketak espero dira.

Gazteen eta nagusien mailan, eskualdeko pilotariak ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Renobales alegiarrak Goenagaren aurka jokatu du gazteetan: «Alegiarrak ikaragarriko mai-

la erakutsi zuen Mitxelenaren aurkako finalerdian; ez zion bere jokoa egiten utzi», zehaztu du *Xalton* Zabalak, txapelketako antolatzaileak eta Zazpilturri pilota taldeko arduradunak. Gazteen mailako finalean izango den beste pilotaria Goenaga azkoitiarra da. Iaz, Kadeteen finalean 18-17 galdu zuen eta «aurten kategoriaz igo berrikan, bera baino bi urte zaharragoak diren pilotarien aurka ez zen espero eman duen erakustaldirik», dio Zabalak. Zentzu horretan, Goenaga finalean ikustea sorpresa nagusienetako izan dela azaldu du.

EMAITZAK ▶

Pasa den asteburuan jokatuak finalerdietako emaitzak:

Kadeteak. Jauregi 18-Iragi 4; Obxandorena 18-Legarreta 15.

Gazteak. Renobales 18-Mitxelena 7; Goenaga 18-Axe 15.

Nagusiak. Belloso 18-Regeti 11; Arruti 18-Aranburu II. 6.

Nagusien mailan, eskualdeko beste pilotari bat: Belloso. Regeti 18-11 irabazi ondoren sailkatu da finalerako bidegoiandarra: «Finalerdietan partidarik zailena izan zen eta Belloso oso ondo jokatu zuen». Arruti usulbidarraren aurka jokatu du: «Honek txapelketa guztian zehar erakutsi duen jokoa kontutuan izanda, txapel erdia eskuetan duela eta osoa lortzeko hautagai nagusia dela esan daiteke», azaldu du *Xalton* Zabalak.

Kadeteetan Jauregiren eta Obxandorenaren arteko izango da txapela lortzeko norgehiagoka. Jauregik 18-14 irabazi zion Iragiri pasa den ostiraleko, hilaren 10eko, finalerdian: «Sekulako erakustaldia eskaini zuen txapelketako azken txanpan oso indartsu dagoela ikusi zen», esan du Zabalak. Kadeteen mailan txapela lortzeko favorito gisa nabarmendu zuen, bestalde.

ALEGIA ▶

Txintxarri-Txiki abesbatzaren entsegua, gaur

Kultur Etxean egingo dute gaur Txintxarri-Txiki abesbatzakoek lehenengo entsegua. Bertan, ikasturteari begirako plangintza, asmoak... azalduko dituzte. Haur abesbatzan parte hartu nahi dutenei 18:00etan Kultur Etxera agertzeko gonbitea egin diete abesbatzako kideek.

AMEZKETA ▶

1959an jaiotakotako bazkaria

1959.urtean jaiotako ugarte-errek eta amezketarrek bazkaria egingo dute datorren larunbatean, hilaren 18an. Amezketako Txindoki jate-txean bilduko dira kintoak. Bazkarirako izena eman dutenei bazkaria 14:30ean izango dela jakinarazi nahi diete antolatzaileek.

ORENDAIN ▶



Kirol erakustaldiaren ondoren elkarretaratzea egin zuten. HITZA

Aldarrikapena, kirol erakustaldian

Orendaingo jaietan, abuztuaren 14ean, hain zuzen ere, herriko kirol taldeak eta Idiazabalgoak erakustaldia egin zuten. Aldarrikapenak ere izan zuen tarterik bertan. *Herriaren hitza errespetatu* leloa zeraman pankartaren atzean jarrita, «Orendaingo herriak egun bizi duen egoera salatzen erakustaldi alternatibo bat egin zuten», zehaztu dute Orendain Abian plataformako kideek. «Erakustaldiak izugarriko arrakasta» lortu zuela gaineratu dute, bestalde.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Agintari kalean etxebizitza berria. 3 logela, 2. pisua eta igogailuarekin, bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Santa Klaran 111 m2-ko etxebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m2koa eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Araba etorbidean 97 m2-ko etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko, balkoi handia eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, egongela, sukaldia, trastelekuarekin; ezin hobeto. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosaldea. Baserrira salgai: 3 solairuko etxebizitza salgai, 30.000 m2-ko lursailarekin. Banatzeko aukera.

Andoain. 90 m2ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pza. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Etebizitza salgai, 2 logelakoa, kanpoaldera begira, sukaldia altzariz hornitua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Maestro Guridin, etxebizitza salgai, bi logelakoa, kanpoaldera begira; sukaldia altzariz hornitua. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra eta Altzo. Etebizitza ugari alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Irura. Eraikuntza berriko 96 m2-ko

etxebizitza, 38 m2-ko jardinarekin, balkoia, trasteleku eta garajearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio 669 87 19 09.

Alegia. Etebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Legorreta. Etebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldia eta trastelekuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Goierri. Bifamilientzako etxe abikia, eraikuntza berrikoa. Mandio.

Elduain. Ete abiki berria, 4 gelakoa eta 2 solairukoa salgai. Informa zaitze. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Ete abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta

sukaldez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m2-ko terrenearekin. Piszina eta guzti. Eta gainera, batzuk biuneneta dotorea. 13.000.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m2-ko lokala salgai. 669 87 19 09

Goierri. Erretegia ingurune naturalean. Terrazarekin eta bezero finkoekin salgai. Prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m2-ko pabiloi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihebidia ondoan. Mandio. 669 87 19 09.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Maisutza uztean esker onez

Bizitzako bideak kolore askotako bukaerak ditu. Niri irailaren hasieran kolore batekoa bukatu zait. Horrek esan nahi du gure herriko eskolan irakaskuntzari utzi egin diodala. Baina, oraindik kolore ezberdin askotako bideetan ihar-dun beharra dut bizitza osoa boroiltzeko.

Ekainaren 19an gure eskola txikiko atari goxoa une gogoangarriak goxatu nituen irakasle, guraso eta ikasleei esker. Zuen harrera eta agur beroak jaso nituen bertan. Gainera, opari ederrak eman zenizkidaten: maite ditudan liburu ederrak, ia egunero jolasteko behar dudana bikaina, aukeratu behar dudana zuhaitza, eta zuen agur goxoa. Benetan, eskerrik asko.

Beste leku batzuetan irakatsi ondoren, orain 26 urte Berrobin hasi nintzen. 1978ko urtea zen. Hiru irakasle ginen. Laurogeita hamar bat ikasle genituen 4 urtetik 11ra bitartean. Ikasgai guztiak ordurarte gaztekeraz zituzten eta orduan hasi ginen Haur Hezkuntzan dena euskaraz ematen eta Lehen Hezkuntzako aurreneko mailetan gairen bat euskaraz (besteak erderaz: dena ezin zen kolpera aldatu) eta komunikazioa ikasleekin gure hizkuntza maitean.

Urte gutxi batzuk pasata, D eredu edo gai guztiak euskaraz sartuta zeuden Berrobiko Eskolan. Orduan, beste irakasle askorekin batera, kaleratu genuen «Eskola txikiak bizirik» esalditxo esanguratsua eta herri txikietan ematen zen irakaskuntza ontzat jo zuten gurasoek ere. Mugimendu honen barruan sortu ziren Eskola Txikietan Guraso Elkarteak. Hemen, Be-

rrubin Ekintza izena jarri genion, geldi ez egoteko asmoa sustraitzeko eta indartzeko.

Urte gutxi hauek nola laburtuko nukeen esatea ausartzen naiz: oso pozik nago egindako nire lanarekin; orain herrian gazte eta hain gazte ez diren bizitzan parte hartzeak alaitasun sentimendu sakona sortu dit, eta sentimendu horrek irauten eta iraungo du; lehen ikasle izan nituen asko lagun mesedeak ere ekarri dizkidate; ikasleekin saiatzeko eta ikasteko joera lantzen saiatu naiz; baita ere elkarrenganako errespetoa erakusten; eta garrantzizkoa dena: euskara eta euskal kultura maita-

tzen eta erabiltzen. Ikasturte berria hasi da. Bizitza aurrera doa. Zuen seme-alabak handitzen, helitzen eta euren autonomia lantzen jarraituko dute. Baina, nire esperientzi apala eta beste askorena kontutan hartuz, hau dena bide zuzenean eramateko irakasle eta gurasoen arteko loturak honako balore hauengan sustraitu behar dira: konfidantza, zintotasunean eta egizaletasunean.

Bukatzeke, idazle batek zioen moduan: «Eskergabea da, esker ona isiltasunera mugatzen duena». Irailaren 1ean nire bizitzako irakaskuntza lan ofizialari amaiera eman diot. Eskerrak eman beharrean nago 26 urte guzti hauetan izan ditudan guraso talde ugari jatorrari, hainbat irakas-lankide hobeinari eta, batez ere, ikasle desberdin, on, goxo, zail eta egunero-ko lanean eduki ditudan guztiak.

BITTOR MADINA ▶ BERROBI

XABI FERNANDEZ ▶ KIROLARIA

«Euskal Herrian bela indartzea lortu badugu asko pozten naiz»

Konpetizioari ekingo diote laster Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek; joan aurretik, merezitako atsedenaldia

IÑIGO TERRADILLOS

Hiru aste pasatu dira Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinez hondarribiarrak Atenasko Olinpiar Jokoetan, belan urrea irabazi ondoren Ibarren merezitako omenaldia egin zitzaizela. Hainbat sinadura eskatu diete, elkarriketa asko egin dizkiete eta askok zoriondu dituzte egindakoagatik. Egoera zertxobait lasaitu den une honetan, HITZAK Xabi Fernandezekin egon nahi izan du azken aste hauetan gertatu denari buruz eta aurrerantzean honek izango duen eraginari buruz hitz egiteko. Gerturatzan zirenen zorionak eta agurrak jasotzen zituen bitartean hauek izan dira berak kontaktutakoak. **Nola aldatu da zure bizitza azken hiru aste hauetan?**

Bizitza ez da gehiegi aldatu. Olinpiar Jokoetatik itzuli ginean harriritu geratu ginen egindako harrerarekin. Leku askotatik hots egin digute elkarriketarako egiteko eta ohituta ez gaudenez, zaila egiten da.



IÑIGO TERRADILLOS

Bestalde, herritarrekin ere oso pozik nago eta asko eskertu dut, nabaritzen baitzen oso gustura zeudela. Egia da orain ezagunago garelara eta joaten garen herrietan ezagutu egiten gaituztela eta jendea gerturatu egiten dela, baina hau segituan pasatuko dela iruditzen zait. **Urrezko domina irabazi duzue Atenasen, eta munduko**

eta Europako txapeldunak zarete zer geratzen zaizue orain?

Laster probak egiten hasiko gara Galiziatik aterako den Mundu Probarako eta Olinpiar Jokoetan jarraitzea da baita ere gure asmoa. Asko geratzen zaigu oraindik egiteko. **Gazte askok orain zuen bidea jarraitu nahiko du eta bela**

praktikatzen ikasi nahiko dute.

Donostiako bela eskolakoein hitz egiten egon gara eta jende askok deitu du. Euskal Herrian bela indartzeke balio badu asko pozten naiz.

Haur edo gazte batek kirol honetan hasi nahi badu, beraz, zer egin behar du?

Donostiako eskolan ikastarok antolatzen dituzte adin guztietako jendearentzat. Hamabost urtetik aurrera bi lagunentzako barkua eros daiteke, dirudiena baino merkeagoa delarik.

Baina konpetitza ez da hain erraza izango ezta?

Guk jaso ditugun laguntzekin egin dugu aurrera. Gero, babesle batekin hasi ginen eta horrek nahikoa erraztu zizkigun gauzak.

Egin duzun kirol bakarra ez da hau.

Txikitatik aritu izan naiz belan, baina duela zortzi urte utzi egin nuen denbora batez eta txirindu gainean aritu nintzen afizionatuetan. Gero, Ikerrek bere taldekide izatea proposatu zidan eta belarekin gogor ekiteko erabakia hartu nuen.

Belarekin hasiko ez bazina zertan egongo zinen une honetan?

Tolosako paper ingeniarietza eskolan ikasi nuen eta seguru-erik espresaren batean egongo nintzen lanean.

Oporretarako hartuko dituzue laster egun batzuk, nora joateko?

Nire neskalagunaren esku utziko dut hori. Mendia edo itsasoa aukeratzeko ditut, biak gustuko ditut oporretarako.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartea. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa) 943 65 10 40
Gimeno. Elbarren 52 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aiztondo. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaidea. 687 41 01 18.
leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. 24 urteko neska, umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako eskaintzen da.
676 34 90 81

Taberna. Pertsona bat behar da asteburuetan Leitzaiko tabernan lan egiteko. 619 45 02 49
Taberna. Neska behar da Villabonan lan egiteko
19:00etatik 13:00etara.
650 48 79 34

ETXEBIZITZAK

Tolosa. Pisua salgai Korreo kalean. Egongela, sukaldia, bi logela eta komuna. Berritua. Estreinatzeke. 615 713 762

BESTERIK

Alokairua. Kabina alokatzen da masaje edo estetikaarako.
686 37 86 63

LEITZA ▶

Informatika ikastaroak burutuko dira neguan

Izena emateko epeak zabalik daude jada, batez ere gurasoei bideratuak direlarik

J. ASTIBIA

Aurtengo negurako informatika ikastaroak antolatuta dituzte, oraingoz hiru txanda, urriaren 4etik aurrera, institutuko guraso batzuk.

Ikastaro hauetan Internetaren konfigurazioa eta erabilpena, korreo elektronikoa, Outlook-a, programen ezarpena, antibirusa, aurreratu-tako Excel eta Acces-a, moduko gaiak landuko dituzte, 30 orduko iraupenarekin. Ikastaroak astelehen eta asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara izanen dira. Amazabal institutuan bertan. Irakasle lanetan Ainara de Miguel ariko da eta 90 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

Horren harira, antolatzaileek adierazi zuten, «batez ere gurasoei bideratutako ikastaroak dira», eta «informatikako oinarrizko ikastaroak eginak dituzten ikasleek lehenetasuna izanen dute», nabarmendu zuten, bestela ere izena eman daitekeela argituz jarraian.

Hiru ikastaro

Edozein moduz, eskura dituzten 12-14 ordenagailutarako jendea, «apuntatu ahala hartuko dugu eta ikastaro gehiago ere antolatuko dira», zioten.

Oraingoz, hiru ikastaro antolatuta dituzte. Bata, hurrengo hilaren 4ean hasiko den hori, azaroaren 24ean amaitzeko; bigarrena, azaroaren 29tik datorren urteko otsailaren 21a bitartekoa. Eta hirugarren bat, oinarrizko informatika ikasteko, ordea, otsailaren 28an hasi eta apirilaren 25a arte luzatuko dena.

Ikastaro hauetarako, Astiz liburudendan eman behar da izena, lehenbailehen.

LEITZA ▶ INGURUMENA

Gorritzaran eta Erasoteran ubideratze plana onartuta dago

Landa Behikoa parajearen hirigintza-garapena egin ahal izateko, uholdeen prebentziorako proiektua da



500 urtetik behineko euriteetan, Landa Behikoa parajea urak hartzeko arriskupean dagoen eremu modura jo du Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak eta zonalde hori guztia urbanizatu nahi izanez gero, bi erreka horien ubideraketa egin behar omen da lehendabizi. JAIONE ASTIBIA



Areko Zubitik behera, paperfabrikaren parean ubideraketa hasten denerainoko Erasoteko erreka zatitari dagokio plana. Arakindegiko zubia da beste muga, Gorritzaran errekan. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean, hilak 10, burutu zen aparteko batzarrean onartu zen, besteak beste, eta «Leitzan, Erasote eta Go-

rritzaran errekan ubideratze plana» du izena, proiektu horrek. Arremia Etxegintza SL elkarteak, Landa Behikoa, Arakindegiko aurrean egin nahi duen etxebizitzaren eraikuntza

aurrera eraman ahal izateko, Iparraldeko Uren Konfederazioak jarritako baldintza da, proiektu hori erredaktatu eta onartzearen arrazoi nagusietako bat.

Izan ere, hirigintza plana onartu zenean eragozpenik jarri ez zuen arren, elkarte horrek aurkeztutako proiektua aztertzerakoan, Iparraldeko Uren Konfederazioak Landa Behikoa uholdeetan urak hartu dezakeen eremutzat jo zuela eman zen aditzera, batez ere Gorritzaran eta Erasote errekek bat egiten duten puntua, Leitzaran ibaiaren sorgunearen, eraginez eta proiektua aurrera aterako bazen, zonalde horretako guztiko uholde plana egitera, erredaktatzera behartu.

Ezaugarriak

Esan bezala, plan horrek Erasote eta Gorritzaran erreketan

luke eragina: Erasoten, Ariko Zubitik behera eta Gorritzaran Arakindegiko Zubitik behera, biek elkartu eta paperfabrikaren parean, jada ubideratuta dagoen gunera arte, Leitzaranen.

Planean berean ere, hiru tar- te horiek kontutan hartu eta beste hainbeste zatitan banatu ta dago ubideraketaren aurreikuspena: lehendabizi aitatu den zatian errekan bi bazterretan ekin ez eta besteetan, berriz, errekan gora, eskuin bazterretan.

Proiektuan ageri denez, erreka hamar metro zabalekoa geldituko litzateke, oinarri batetik abiatuz, aldeetara harrizko paretak etzanak izanez, metro eta erdiko altuerakoak. Horren gainean, beste metro bete, lurrezkoa izanen litzateke. Bukatzeko eta erreka bazterretako terrenei eusteko, metro bateko harrizko paretak legoke. Hor babeserako barantzua jarriko litzatekeelarik. Errekaren oinarri orotara, banaz beste, lau metro eta erdiko altuera geldituko litzake.

Berreskurapena

Lan hauek eraginaren lituzketen ondorioen berreskurapena errazteko urrats batzuk ere aurreikusten dira: Lurrezko geruza horretan erreka bazterreko berezko landareak aldatuko lirakeela ageri da, sahasa, altza, modukoak.

Ubideraketa horrekin batera, Ariko Zubitik errekararen sarbidea egiteko, zortzi metro zabaleko bidea irekitzea eta errekan bertan, presatxoak, ur saltoak, eraikitzea proiektatuta dago.

Hau guztia, 500 urtetik behin etor litekeen ur-emariari aurre egin eta uholdeak gerta ez daitezten bermatzen saiatzeko.

Edozein moduz, ostiralean plana onartu besterik ez zen egin. Hori exekutatzera aparte erabaki beharreko kontua omen da, besteak beste, guztira 596.875 euroko, lehenengo ia ehun milioi pezetako, aurrekontua duelako.

Ubideratze plan honen proiektua eta erredakzioa, Astiv Ingenieria S.L. enpresak egin zuen, Arremia Etxegintza S.L.-ek eskatuta. Eta hau onartzearekin bakarrak, Konfederazioaren baimena eskuratuko omen luke, jadanik bere etxea eraikitzen hasteko.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**943 30 43 46**

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai





AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belauntza. Botika naturala eta aromaterapia ikastaroan izena eman daiteke Kultur Etxean (943 67 00 20).

Ibarra. Izaskun izena dutenen bazkaria izango da igandean. Izene-ematea: 943 67 59 27.

Tolosa. Lehen laguntzen ikastaroak Gurutze Gorrian (943 67 48 88).

Tolosa. Gimnastika erritmikoan izena eman daiteke astelehenerdik aurrera Igarondo igerilekuan edo Tolosa CFren bulegoetan.

Tolosa. Igandean Izaskun auzoko jaietan bazkaria egingo da. Txartelak 15 eurotan (urteek 8 euro) salgai auzoko tabernetan.

Tolosa. Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara. Ibarra Gazte txean. 21:45.

ERAKUSKETAK

Anoeta. Amnesty International-en argazkiak udaldebeko bideo gelan.

Belauntza. Aurora Polarren espedizioa Kultur Etxean.

Hernalde. Leire Markinez. Ostatuan.

Tolosa. May Colmeneroren ikasleak. Aranburun.

Tolosa. Miren Gonzalez. Aranburu Jauregian.

Tolosa. Zaharkinak. Ferialekuan.

Tolosa. Ricardoren zapatak. Oskarbi tabernan.

ZINEMA

Alegia. *Insomnio* Erbeta pilotalekuan 21:30ean.

Kalebeherako jaien barruan.

Ibarra. *Estacion Central de Brasil* 21:45ean Gazte txean, zine-klub saioa.

ZORION AGURRAK ▶

HITZA,
zorian agurren
tarteak

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!



Saltoka ibili ziren jolasean haurrak atzo arratsaldean. J.SAIZAR



Zaku karreran ederki pasatu zuten txikienek. J.SAIZAR

Haurrek jolasteko eguna

TOLOSA ▶ Extremadurako Kultur Astean txikiak izan ziren atzo protagonistak; gaur, plater tipikoen lehiaketa eta dastaketa izango da La Jara zentroan



Eltzeitsuak hausten jo eta ke, La Jara egoitzaren gela batean. J.SAIZAR

ERREDAKZIOA

Haurrek jolasteko eta hainbat aktibitate egiteko aukera izan zuten atzo La Jara elkartean, Tolosako Extremadurako Etxean. Aste honetan kultur ekitaldi ugari ari dira burutzen eta atzo txikien eguna izan zen. Jokuez gain, idazlanak, marrazkiak eta txokolatada izan zuten. Ondoren Zer dakizu Extremadurari buruz? jokua izan zuten.

Gaur ekitaldi berezi bat izango dute Extremadurako kultur astearen barruan. Lurralde hartako plater lehiaketa izango da La Jaran. Hain ospetsuak diren migas, patata tortila, tomate zopa, arkume kaldereta, gazpatxo, tomate entsalada eta zorongollo edo moje (tomate, piperra, tipula eta baratxuri egosia) platerak prestatzen ariko dira. Gainera Cencibel ardoaren dastaketa izango da.

Bihar, etzi eta etzidamurako beste hainbat ekitaldi prestatu dituzten eskualdean bizi diren extremadurarrak.



Gaur Extremadurako plater tipikoen lehiaketa izango da. J.SAIZAR



Ekitaldiz beteriko astea ari dira burutzen egoitza honetan. J.SAIZAR